

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Behin betiko onartzea dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantza aldatzeko espedientea

Espediente horri alegaziorik jarri ez zaionez, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea
2. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketan arloak
3. artikulua. Onuradunak
4. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak
5. artikulua. Dirulaguntzak zuzenean ematea
6. artikulua. Dirulaguntzak norgehiagoka araubidean ematea
7. artikulua. Onuradunen betebeharrak
8. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Zer gasturi eragiten dien dirulaguntzak
9. artikulua. Justifikatzea eta kobratzea
10. artikulua. Dirulaguntza itzultzea
11. artikulua. Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak
12. artikulua. Arau hausteen erantzuleak
13. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea
14. artikulua. Arau haustea
15. artikulua. Zehapenak
16. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen preskripzioa
17. artikulua. Indarrean sartzea

Dirulaguntzak eta laguntzak ematea arautzen duen ordenantza orokorra

1. artikulua. Dirulaguntzaren xedea

Lege Orokor Dirulaguntzenak 17. artikuluan xedatutakoari jarraituz (38/2003 Legea, azaroaren 17koa), ordenantza honen bidez ezartzen dira Arratzua-Ubarrundiako Udalak dirulaguntzak emateko oinarriak, lege horretan jasotzen diren printzipioen arabera: berdintasuna eta diskriminaziorik eza, publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, eraginkortasuna eta efizientzia.

2. artikulua. Dirulaguntza jaso dezaketen arloak

Udalak, ordenantza honetan xedatutako prozeduren bitartez, arlo hauetan eman ahal izango ditu dirulaguntzak:

- a) Gizarte ekintza
- b) Kooperazioa.
- c) Kultura eta euskara
- d) Hezkuntza
- e) Kirolak
- f) Ekonomiaren sustapena
- d) Emakumea, gazteria eta hirugarren adina
- h) Kontzejuek egindako obrak eta inbertsioak eta gastu orokorretarako ekarpena
- f) Zaindarien jaiak ospatzea

Aldiz, ondoko gastu hauek ezin dute dirulaguntzarik jaso:

- Otorduak, elikagaiek sortutako gastuak, salbu eta udalak alde aurretik onartutako anoa hornidurak.
- Mantentze lanetako gastuak.
- Ondasun higigarriak edo higiezinak eskuratzea, salbu kontzejuei dirulaguntzak emateko ordenantza espezifikoan zerrendatutakoak.
- Animaliak erabiltzen diren jai ospakizun eta jardueretan sortzen diren gastuak.
- Lehendik udalaren beste dirulaguntza lerro baten bitartez dirulaguntza jasotzen duten gastuak.

3. artikulua. Onuradunak

1. Dirulaguntzaren onuraduna izango da hura ematea ekarri zuen jarduera gauzatu behar duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo hura jasotzeko eskubidea ematen dion egoeran dagoena, edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezarritako egoeretan dagoena.

Ezingo dira izan ordenantza honek arautzen dituen dirulaguntzen onuradun egoera haue-takoren batean dauden pertsona edo entitateak:

- a. Epai irmo bidez kondenaturik, dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko debekua dutenak.
- b. Borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eskaera egin dutenak, edozein prozeduratan kau-dimengabe jo direnak, konkurtsoan deklarata daudenak –konkurtso horretan hitzarmen bat ezarri bada salbu–, epailearen esku hartzearen menpe daudenak edo desgaituta daudenak uz-tailaren 9ko 22/2003 Lege Konkurtsalaren arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze epealdia oraindik amaitu gabe egonik.
- c. Udalarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin dutenak, suntsiarazpen kausa horren errudun jo dituztelarik.
- d. 5/2006 Legeak (apirilaren 10ekoa, gobernuko kideen eta Estatuko administrazio oroko-rreko goi kargudunen interes gatazkak arautzekoa), edo 53/1984 Legeak (abenduaren 26koa, herri administrazioetako langileen bateraezintasunena) jasoriko kasuren batean sartuta dauden pertsona fisikoak edo pertsona juridikoaren administratzaileak, edota 5/1985 Lege Organikoak (ekainaren 19koa, hauteskundearen araubide orokorrarena) araututako hautetsi direnak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia araudian ezarritako baldintzen arabera.

e. Indarreko xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean ez dituztenak.

f. Arau bidez zerga paradisutzat jotako herrialde edo lurralde batean daukatena zerga egoitza.

g. Dirulaguntzak itzultzean bete beharrekoak egunean ez dituztenak, arauz ezarritakoa aintzat hartuta.

h. Epai irmo bidez kondenaturik, dirulaguntzak eskuratzeko debekua dutenak, 38/2003 Lege Orokorraren arabera (azaroaren 17koa, Dirulaguntzena), edo hala xedatzen duten beste lege batzuen arabera.

i. Ezingo dira onuradun izan 38/2003 Lege Orokorrak (azaroaren 17koa, dirulaguntzena) 11. artikuluko 3. idatz zatiaren bigarren paragrafoan aurreikusten dituen taldeak, horietako kideetakoaren batek goian zehaztu diren debekuetakoaren bat badu.

j. Halaber, enpresek ezin izango dute dirulaguntzarik eskuratu, baldin eta, zuzendaritzan dauden pertsonen edo bestelako inguruabarrei erreparatu, presuntzioa ezar badaiteke debekuak zituzten beste enpresa batzuen jarraipen edo ondorengo direla, eraldatzea, bat egitea edo ondorengotza medio.

k. Ez bete izana laguntza lerro horren aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen ondoriozko betebeharrak guztiak.

l. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legean (otsailaren 18koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoa) eta 3/2007 Lege Organikoak (martxoaren 22koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunerakoa) ezarritako kasuetan egotea.

Edozelan ere, ezingo dira izan lege honetan araututako dirulaguntzen onuradun, ezta erakunde laguntzaile ere, 1/2002 Lege Organikoaren, 4. artikuluko 5. eta 6. paragrafoetan ezarritako debeku egoeretan dauden elkarteak (1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, elkartzeko eskubidea arautzen duena).

Halaber, elkarteak ezingo dira izan dirulaguntzen onuradun edo erakunde laguntzaile, baldin eta inskribatzeko hasitako administrazio prozedura gerarazi egin bazaie zigor arloko bidegabearen zantzu arrazoizkoak atzeman direlako, 1/2002 Lege Organikoak 30.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, harik eta ebazpen irmoa ematen den arte, erregistroan inskriba daitezkeela ezarritakoa.

Era berean, pertsonen elkarte edo taldeen kasuan, Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan edo dena delako autonomia erkidegokoan (Euskal Autonomia Erkidegotik kanpokoak badira) erregistraturik egon behar dute.

4. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedurak

Dirulaguntzak zuzenean edo norgehiagoka araubideko prozeduraz eman daitezke.

Dirulaguntzak izapidetzeko ohiko prozedura norgehiagoka izango da. Norgehiagoka, prozeduran dirulaguntzak honela ematen dira: aurkeztu diren eskaerak alderatu eta lehentasun hurrenkeran jartzen dira, oinarrietan eta deialdian aurrez ezarritako irizpideen arabera, baliagarri dagoen kreditua gainditu gabe.

Ez da lehentasun hurrenkerarik ezarriko aurkeztu diren eta ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskaeren artean, baldin eta deialdian jarritako kreditua nahikoa bada epea amaitutakoan dauden eskaera guztiei dirulaguntza emateko.

5. artikulua. Dirulaguntzak zuzenean ematea

Dirulaguntza hauek zuzenean eman ahal izango dira:

a) Udalaren aurrekontuan izendun gisa aurreikusita daudenak, esleipen hitzarmen edo ebazpenetan eta haiek arautzen dituzten araudietan —edo haiek ezean ordenantza honetan— ezarritako baldintzen arabera.

Udal aurrekontuak onuradunaren izena, diruz lagunduko den objektua eta zenbatekoa hartuko ditu barne.

Aurrekontua gauzatzeko oinarrietan jasoko dira era honetako dirulaguntzak, eta hitzarmen bidez formalizatuko dira, bertan zehaztuta dirulaguntza nola ordainduko den eta nola justifikatuko den.

Hitzarmen beharrik ez duten dirulaguntzak ordainduko dira onuradunek aldez aurretik eskaera aurkeztuta. Dirulaguntzaren justifikazioa ordenantza honen 0. artikuluan ezartzen den moduan egingo da.

b) Udalak lege mailako arau batek aginduta edo zenbatekoa finkatuta ematen dituen dirulaguntzak; berariazko araudiaren arabera dagokien prozeduraz emango dira.

c) Salbuespenez, bestelako dirulaguntzak, baldin eta frogatzen bada interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko zioak daudela, edo behar bezala egiaztatzen bada deialdi publiko baten bidez emateko zailtasuna.

Udalaren urteko aurrekontuan, dirulaguntza horiek esleitzeko urteko izendapena egon beharko da jasota, eta ezingo da dirulaguntzarik eman zenbateko horretatik gora

Ebazpenean, erabakian edo hitzarmenean ezarriko dira dirulaguntza hauei aplikatuko zaizkien era guztietako baldintzak, puntu hauek sartuta:

— Dirulaguntzaren xedea eta onuradunak, aurrekontu esleipenarekin bat etorriz.

— Gastua zer aurrekontu kredituri egotziko zaion eta dirulaguntzaren zenbatekoa, onuradunak banakatuta bat baino gehiago badira.

— Beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekiko ateragarritasuna edo bateraezintasuna, beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu batzuek —Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko organismoetakoek— helburu horretxetarako eman dituztenean.

— Dirulaguntza ordaintzeko epeak eta erak, ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egiteko aukera, eta onuradunak aurkeztu beharreko bermeen araubidea, hala badagokio.

— Justifikazio epea eta modua, onuradunak dirulaguntzaren helburua bete duela eta dirua zertarako erabili duen egiaztatzeko.

— Ez betetzeak mailakatzeko irizpideak, dirulaguntza ematean onuradunari jarritako betebeharrak beteko ez balira ere. Irizpide horiek aplikatuko dira zehazteko onuradunak azkenean jasoko duen zenbatekoa edo, hala badagokio, itzuli beharrekoa, eta proportzionaltasunaren printzipioan oinarrituko dira.

6. artikulua. Dirulaguntzak norgehiagoka araubidean ematea

A) Ofizioz hastea:

Prozedura ofizioz hasiko da, deialdi baten bidez, zeinak gutxienez eduki hauek izan beharko baititu:

1. Dagokion ordenantzaren argitalpenaren aipua, bai eta horretarako onartutako oinarriena ere.

2. Zer aurrekontu kredituri egotzen zaion dirulaguntza eta zenbatekoa den deialdiko dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, eskura dauden kredituen barruan, edo, bestela, zer zenbateko aurreikusten den dirulaguntzetarako.

Dirulaguntzak ematean ezingo da gainditu deialdian ezarritako gehieneko zenbatekoa aurrez beste deialdi bat egin gabe, nola eta hasierako deialdiak berak ezartzen ez duen, eskura dauden kredituen gehieneko zenbatekoaz gain, kopuru gehigarri bat, dirulaguntzak emateko balia daitekeena beste deialdi bat egin beharrik gabe.

Kopuru gehigarri hori ezarri ahal izango da baldin eta, egotzi behar zaion kreditua eskuragarri egon ez arren deialdia egiten den unean, aurreikusten bada lortuko dela dirulaguntzak emateko ebazpena baino lehen; izan ere, horretarako, eskura dauden aurrekontu kredituen gehikuntza bat beharko da, kreditu sorkuntza, handitze edo eranste baten ondorioz.

3. Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.

4. Adieraztea dirulaguntza norgehiagokaz esleituko dela.

5. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta betetzen direla egiaztatzeke modua.

6. Prozeduraren instrukzioa egiteko eta ebazpena emateko eskumena zein organok duten adieraztea.

7. Eskaerak aurkezteko epea; Dirulaguntzen Lege Orokorraren 23.3 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

8. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

9. Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.

10. Adieraztea ebazpenak administrazio bidea amaitzen duen edo ez, eta, ezezkotan, zein organori jarri behar zaion errekurtsua.

11. Eskaerak balioesteko irizpideak.

12. Jakinarazteko edo argitaratzeko bitartekoa.

B) Eskaerak aurkeztea:

Eskabidea udalaren sarrera erregistroan aurkeztu beharko da, edo zuzenbidean onartzen den bitartekoetako edozeinen bidez.

Eskaerari erantsita, deialdian adierazten diren agiriak aurkeztu behar dira.

Eskatzaileak agiriak berriz ez aurkezteko eskubidea baliatu ahal izango du baldin eta eskatzen diren agiriak lehendik udalaren esku badaude eta haien prozedura bukatu zenetik bost urte baino gehiago igaro ez badira. Edozein modutan, agiriak zein egunetan aurkeztu edo eman ziren adierazi beharko du.

Ondoren zerrendatzen diren kasuetan, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean izatea egiaztatu ordez, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da:

– Ikasleei ematen zaizkien beka eta dirulaguntzak, ikastetxe publiko edo pribatuetoako irakaskuntza arautuko jarduerak finantzatzeko.

– Onuradun bakoitzari emateko zenbatekoak, deialdian, 3000 euroko muga gainditzen ez badu.

– Herri administrazioei, erakunde eta entitate publikoei eta haien mendeko sektore publikoko fundazioei emandako dirulaguntzak, nola eta oinarrietan espresuki bestelakorik jasotzen ez den.

– Gizarte ekintzako eta nazioarteko lankidetzako proiektu edo programak finantzatzeko dirulaguntzak, irabazteko asmorik gabeko entitateei edo halakoan federazio, konfederazio edo taldeei emanak.

Betebeharrak dirulaguntzak itzuliz betetzea ere egiazta daiteke erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta.

Ordenantzan ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badira, organo eskudunak interesdunari eskatuko dio falta dena aurkezteko, gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean, eta adieraziko dio, hala egin ezean, ulertuko dela eskaeran atzera egiten duela.

C) Prozeduraren instrukzioa:

Alkatea izango da organo instruktorea.

Hauek izango dira instrukzio jarduerak:

— Eskatzea dirulaguntza emateko behar diren txosten guztiak edo dirulaguntzaren oinarri arauetan galdegiten direnak.

— Eskaerak ebaluatzea, dirulaguntzaren arauan haiek balioesteko ezarrita dauden irizpide, modu edo lehentasunen arabera.

Arau horretan aurreikus liteke, halaber, aurre-ebaluzioko fase bat, egiaztatzeko ea betetzen diren onuradun izateko ezarrita dauden baldintzak.

Eskaerak ebaluatu ostean, xedearen arabera dagokion informazio batzorde iraunkorrera bidaliko da espedientea, eta hark eskaeren gaineko txostena eta dirulaguntza emateko proposamena egingo ditu.

Azterturik dirulaguntzaren xedearen arabera dagokion informazio batzorde iraunkorraren espedientea eta txostena, udalbatzak behin betiko ebazpenaren proposamena egingo du

Behin betiko ebazpen proposamenak ez dio proposatutako onuradunari inolako eskubiderik ematen administrazioaren aurrean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten zaion arte.

Behin betiko ebazpen proposamenak hauek jaso behar ditu:

— Dirulaguntza jasotzeko proposatu diren eskatzaileen zerrenda.

— Dirulaguntzaren zenbatekoa.

— Dirulaguntza ukatu zaien eskatzaileen zerrenda.

D) Ebazpena:

Behin betiko ebazpen proposamena onartuta, organo eskudunak hamabost eguneko epean ebatziko du prozedura, ebazpen proposamena helarazten zaion egunetik aurrera. Ebazpena arrazoitua izango da, eta beti frogatu beharko dira ematen den ebazpenaren oinarriak. Era berean, argi zehaztu beharko dira onuradunek hartzen dituzten konpromisoak; dirulaguntzaren zenbatekoa eta hura jasotzea onuradunak berak proposatutako jarduera bat egitearen mende badago, argi identifikatu beharko da proposamena bera edo zein dokumentutan formulatu zen.

Agertu beharko dira, batetik, dirulaguntza ematen zaion eskatzailearen edo eskatzaileen zerrenda, eta, bestetik, gainerako eskaeren ezespina (atzera egin delako, eskubideari uko egin zaiolako edo gerora sortutako ezintasun materialagatik). Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da. Epea deialdia argitaratzen den unean hasiko da, nola eta deialdiak berak ez dituen ondorioak atzeratzen geroagoko beste data batera.

Gehieneko epea igaro eta interesdunei behin betiko ebazpena jakinarazi ez bazaie, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, administrazio isiltasunagatik.

7. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Hauek dira onuradunen betebeharrak:

a) Dirulaguntza ematea arrazoitzen duen helburua betetzea, proiektua egitea, jarduera gauzatea edo dirulaguntza ematearen oinarri izan den portaera edukitzea.

b) Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean justifikatzea betekizunak eta baldintzak bete direla, baita dirulaguntza emateko edo gozatzeko oinarri izan den jarduera egin dela eta helburua bete dela ere.

c) Dirulaguntza eman duen organoak egiten dituen ikuskatze lanak onartzea, baita kontrol organo eskudunek egin ditzaketen egiaztapen eta finantza kontrolak ere, aurreko zeregin horietan eskatuko zaien informazio oro emanez.

d) Aipatutako organoari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntzak, laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu izana, horren berri izan eta berehala.

e) Ebazpen proposamena egin aurretik frogatzea egunean dituela zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak, bai eta udalarekin ordaindu gabeko zorrak dituztela ere.

f) Behar bezala ikuskatuta edukitzea kontabilitate liburu, erregistro izapidetu eta gainerako agiriak, merkataritzako legerian eta onuradunari aplikatzekoa den sektorekoan xedatutako moduan.

g) Gordeta edukitzea jasotako laguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten agiriak, agiri elektronikoak barne, egiaztatuak eta kontrolatuak izan daitezkeen heinean (4 urtean, dirulaguntza esleitzen denetik aurrera)

h) Behar bezala zabaltzea diru publikoz finantzatu direla dirulaguntza jaso duten programa, jarduera, inbertsio edo jardunak.

i) Itzulketa egiteko arrazoietakoren batean sartuta egonez gero, jasotako zenbatekoa itzuli egin beharko da.

8. artikulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa. Zer gasturi eragiten dien dirulaguntzak

Oro har, eta ordenantza espezifikoak kontrakoa xedatzen ez badu, udalak norgehiagokaz ematen dituen dirulaguntzek ezingo dute gainditu diruz lagundutako jardueraren kostuaren ehuneko 90a.

Udalaren dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein dirulaguntza edo laguntza motarekin, salbu eta berariazko ordenantzan besterik ezartzen bada.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin da inolaz ere izan jardueraren kostua edo berariazko ordenantzan ezarritako beste zenbateko bat baino handiagoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera.

Dirulaguntzak zer jardueratarako eman diren, bada, jarduera horiekin zuzeneko lotura duten gastuak berdintzeko izango dira, eta deialdi bakoitzean finkatuko dira zer kontzeptu diren diruz laguntzekoak.

Aldiz, ondoko gastu hauek ezin dute dirulaguntzarik jaso:

- Bankuko kontuen korritu zordunek.
- Korrituek, errekarquek eta administratibo eta zigor zehapenek.
- Prozedura judizialetakoko gastuek.
- Zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira joko dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

9. artikulua. Justifikatzea eta kobratzea

1. Dirulaguntza jasotzeko, dagokion berariazko ordenantzan zehaztutako agiriak aurkeztu beharko zaizkio udalari, eta berariazko ordenantzarik ezean, honako agiri hauek:

– Onuradunak sinatutako eskaera, udalari zuzendua. Bertan, dirulaguntzaren ordainketa eskatuko du eta transferentzia zein kontu korrontetan egin behar den adieraziko du.

– Gauzatutako jardueraren memoria, honako hauek jasotzen direla: jardueraren arduraduna, dirulaguntzaren xedea, erakunde edo pertsona onuraduna, diruz lagundutako zenbatekoa, zer ekintza zehatz gauzatu den, eta zenbat herritarrek atera duten onura.

– Gauzatutako gastuen zerrenda zenbakiduna, dagozkion jatorrizko fakturekin edo haien fotokopia konpultsatuekin, eta, orobat, faktura horiek ordaindu izanaren frogagiriak. Fakturak izan behar dute dirulaguntzaren onuradunak jaulkiak.

– Onuradunak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarenak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak edo, horien ordean, ordenantza honen 6. artikuluan zehazten diren kasuetan, erantzukizunpeko adierazpena.

– Diruz lagundutako jarduerari aplikatutako beste diru sarrera batzuen zerrenda (direla dirulaguntzak, ekarpenak eta abar).

Frogagiriak aurkeztu beharko dira dirulaguntza eman den ekitaldia amaitu baino lehenago, non eta deialdian ez den besterik zehazten.

2. Onuradunek ez dute justifikazio agiririk aurkeztu beharko 500 euroko dirulaguntza edo txikiagoa jasotzen badute; nolana ere, gauzatutako jardueraren memoria aurkeztu beharko dute.

3. Justifikatutako gastuak dirulaguntza esleitzeko aurkeztutako oinarriko aurrekontua baino txikiagoak badira, dirulaguntza murriztu egingo da, gastua murriztu den heinean.

4. Dirulaguntzen oinarri arautzaileetan moduluen bidezko esleipena eta justifikazioa aurreikusten denean, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

– Onuradunak egiaztatu behar du, edo, bestela, aitortzea egin behar du moduluetan jotzen diren unitate fisikoen kopuruari buruz.

– Dirulaguntzaren zenbatekoa, jardueraren memorian kuantifikatutako jarduerak eta oinarri arautzaileetan edo deialdi aginduetan aipatzen diren moduluak oinarritzat hartuta.

– Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehe-tasunak, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

10. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

1. Kasu jakin batzuetan, jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira, eta berandutze interesak ere galdegingo dira dirulaguntza ordaintzen den unetik itzultzea dagokiola erabakitzen den egunera arte kalkulaturik, Dirulaguntzen Lege Orokorrek 38.2 artikuluan ezarritako zenbatekoaren arabera. Hona hemen kasuok:

a) Dirulaguntza lortzea eskatutako baldintzak faltsutuz edo ematea eragotziko luketenak ezkatutuz.

b) Ez betetzea, osorik edo partez, dirulaguntza funtsatu zuen xedea, jarduera edo proiektua, edo ez jokatzea dirulaguntza funtsatu zuen jokabidearen arabera.

c) Ez betetzea justifikatzeko betebeharra, edo ez justifikatzea behar beste, Dirulaguntzen Lege Orokorrek (38/2003 Legea) 30. artikuluan ezarritakoaren arabera eta, hala balegokio, dirulaguntza arautzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.

d) Ez betetzea zabalkunde neurriak hartzeko betebeharra, Dirulaguntzen Legea Orokorren 18. artikuluan 4. idatz zatian jasoa.

e) Eragozpenak, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo ezezkoa ematea egiaztapen eta finantza kontroleko jardunei, 38/2003 Legeak artículo 14. artikuluan jasotakoei, edo ez betetzea kontabilitate eta erregistro betebeharrak edo agiriak gordeta edukitzekoa, baldin eta horrek badakar ezin egiaztatu ahal izatea dirulaguntza zertan erabili den, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo helburu bererako jaso diren nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideak.

f) Ez betetzea dirulaguntza dela medio administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak edo haiek hartutako konpromisoak, baldin eta eragiten badiete dirulaguntza emateko oinarri izan ziren helburuak betetzeko moduari, jarduera gauzatzeari, proiektua gauzatzeari edo portaera edukitzeari, edo horiei buruzkoak badira.

g) Ez betetzea dirulaguntza dela medio administrazioak onuradunei ezarritako betebeharrak edo haiek hartutako konpromisoak, aurreko atalean zehaztutakoez bestelakoak, baldin horrek badakar ezin egiaztatu ahal izatea dirulaguntza zertan erabili den, helburua bete den, diruz lagundutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo helburu bererako jaso diren nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideak.

h) Europar Batasunaren Ituneko 87. artikulutik 89. artikulura bitartean ezarritakoaren arabera, itzuli beharra dakarren erabakiren bat hartzen bada.

l) Dirulaguntzaren araudiak xedatutako bestelako kasuetan.

2. Adituko da itzuli beharreko zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera direla, eta berandutze interes aplikagarria izango da diruaren legezko interesa eta beste ehuneko 25, non eta Estatuaren aurrekontu orokorren legeak ez duen besterik ezartzen.

3. Lau urtera preskribatuko da Udalak dirulaguntza itzultzea onartzeko edo likidatzeko duen eskubidea.

4. Dirulaguntza itzultzeko betebeharra izango dute Dirulaguntzen Lege Orokorraren 40. artikuluan aipatzen diren onuradunek.

5. Dirulaguntza itzultzeko eskatzeko prozedurak administrazio prozedurak izango dira, eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren 41. artikulutik 43. artikulura artekoetan ezarritakoaren arabera izapidetuko dira.

11. artikulua. Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak

Ordenantza espezifikoek jaso dezakete konturako ordainketak eta ordainketa aurreratuak egitea, onuradunek halakoetan aurkeztu behar dituzten bermeak ezarrita.

Dirulaguntza emateko ebazpenean aurrerakina emango dela adieraziz gero, horren ordainketa ebazpena ematen den egunetik aurrera egingo da. Gainerako zatia behin guztira egindako gastuak justifikatutakoan ordainduko da.

12. artikulua. Arau hausteen erantzuleak

Dirulaguntzen arloko administrazio arau hauste izango dira Dirulaguntzen Lege Orokorrak tipifikatutakoak (38/2003 Legea, azaroaren 17koa).

Diru laguntzen arloko arau hauste administratiboaren erantzule izango dira Dirulaguntzen Lege Orokorrean tipifikatutako kasuetan erortzen direnak egitez edo ez egitez, eta, bereziki, honako hauek:

— Dirulaguntzen onuradunak, bai eta dirulaguntza emateko oinarri izan diren jarduerak egiteko konpromisoa hartu duten nortasun juridikorik gabeko pertsona juridiko edo entitateetako kideak ere.

— Jarduteko gaitasunik gabeko dirulaguntza-onuradunen legezko ordezkaria.

— Dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten pertsonak edo entitateak, behartuta daudenak laguntza eta eskatzen zaizkien agiriak ematera.

13. artikulua. Erantzukizunetik salbuestea

Tipifikatutako egite edo ez egiteek ez dute dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboaren erantzukizunetik ekarriko kasu hauetan:

— Jarduteko gaitasunik gabekoek egiten badituzte.

— Ezinbestez gertatzen denean.

— Talde erabaki baten ondorio badira, beren botoa salbatu zutenentzat edo erabakia hartu zen bileran egon ez zirenentzat.

14. artikulua. Arau hausteak

Zehatzeko administrazio prozedura izango da zehapen eskumena baliatzeko prozeduraren araudian jasotakoa, zeina abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen, ohiko moldean zein molde erraztuan, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzen duen araudian dauden berezitasunekin.

A) Arau hauste arinak

Arau hauste arina da ez betetzea dirulaguntzen oinarri arauetan eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, azaroaren 17koa) jasotako betebeharrak, arau hauste larria edo oso larria ez bada, eta zigorra mailakatzeko elementu gisa ez badihardu. Bereziki, jokabide hauek dira arau hauste arinak:

- a) Epez kanpo aurkeztea jasotako funtsak zertan erabili diren justifikatzeko kontuak.
 - b) Justifikazio kontu ez zuzenak eta osatugabeak aurkeztea.
 - c) Arauz ezarritako moduan ez betetzea dirulaguntza ematearen ondorioz hartu diren betebeharrak, artikuluko honetako gainerako paragrafoetan espresuki jasota ez daudenak.
 - d) Ez betetzea kontabilitate edo erregistro betebeharrak, bereziki hauek:
 - Legez eskatzen diren kontabilitatean eta erregistroetan eragiketaren bat edo batzuk zuzenak ez izatea edo ez jasotzea.
 - Ez betetzea hauek eramateko edo gordeta edukitzeko betebeharrak: kontabilitatea, legez ezarritako erregistroak, haien euskarri diren programa eta artxibategi informatikoak eta erabiltako kodifikazio sistemak.
 - Kontabilitate bat baino gehiago eramatea jarduera eta ekitaldi ekonomiko beraren gainean, eragotziz entitatearen benetako egoera zein den jakitea.
 - Kontuak erabiltzea izaeraren arabera dagokiena ez bezalako esangura batekin, eta horrela zailtzea diruz lagundutako jardueren errealitatea egiaztatzea.
 - e) Ez betetzea justifikazio agiriak edo baliokideak gordeta eduki beharra.
 - j) Eragozpenak, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo ezezkoa ematea finantza kontroleko jardunei.
- Egoera hori dela ulertuko da baldin eta, bidezko jakinarazpena jaso ondoren, dirulaguntzen arloko arau hauste administratiboaren erantzulearen jardunak atzeratu, oztopatu edo eragotzi egiten baditu udal funtzionarioen finantza kontroleko lanak.
- Besteak beste, jokabide hauek dira kontrol lanei eragozpenak, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo ezezkoa ematea:
- Ondoko hauek ez aurkeztea edo aztertzen ez uztea: agiriak, txostenak, aurrekariak, liburuak, erregistroak, fitxategiak, frogagiriak, kontabilitate idazpenak, fitxategi eta programa informatikoak, sistema eragileak eta kontroleko sistemak, eta egiaztatu beharreko beste edozein datu.
 - Errekerimenduren bati erantzunik ez ematea.
 - Adierazitako tokian eta garaiz ez agertzea, horretarako justifikatutako arrazoiren bat egon ezean.
 - Bidegabeki, negozio, establezimendu eta lekuetan sartzen edo egoten ez uztea, edo horretarako eragozpenak jartzea, zantzuak egonik haietan daudela zantzu frogagarriak, onuradunak jasotako funtsak zertan erabili dituen edo diruz lagundutako jardueraren errealitatea eta erregulartasuna egoki frogatzeko behar direnak.
 - Hertsatzea finantza kontrola egiten ari diren langileak.

g) Laguntzeko betebeharra duten pertsonak eta entitateek betebeharrak ez betetzea, baldin eta, ondorioz, ezin bada kontrastatu onuradunak edo entitate laguntzaileak emandako informazioa.

h) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko araudian arau hauste arintzat jotako gainerako jokabideak.

B) Arau hauste larriak

Arau hauste larriak dira jokabide hauek:

a) Xede bererako beste dirulaguntza, laguntza publiko, sarrera edo baliabideren bat lortuz gero, dirulaguntzak ematen dituen organoari edo erakunde laguntzaileari jakinarazteko betebeharra urratzea.

b) Ezarritako baldintzak ez betetzea, funtsean aldatuz dirulaguntza ematean izan zen xedea.

c) Ez justifikatzea jasotako funtsak zertan erabili diren, horretarako ezarritako epea amaituta.

d) Dirulaguntzen Estatuko Datu Baseari informazioa emateko betebeharra duten administrazioek, organismoek eta gainerako erakundeek ez ematea informazioa.

e) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko araudian arau hauste larritzat jotako gainerako jokabideak.

C) Arau hauste oso larriak

Arau hauste oso larriak dira jokabide hauek:

a) Dirulaguntza lortzea esleitzeko ezarritako baldintzak faltsutuz, edo ematea eragotzi edo mugatuko luketenak ezkutatu.

b) Jasotako zenbatekoak ez erabiltzea, osorik edo partez, dirulaguntza ematean izan zen xederako.

c) Eragozpenak, aitzakiak edo oztopoak jartzea edo ezezkoa ematea Dirulaguntzen Lege Orokorrean aurreikusitako kontrol jardunei (38/2003 Legea, azaroaren 17koa).

d) Europar Batasunaren dirulaguntzen arloko araudian arau hauste oso larritzat jotako gainerako jokabideak.

15. artikulua. Zehapenak

Bidegabeki eskuratutako zenbatekoak itzultzeaz gain. Aurreko artikuluan zehaztutako arau hausteek zehapen hauek izango dituzte:

1. Arau hauste arinen zehapenak. Arau hauste arintzat jotako jardun bat egiteak zehapen hau ekarriko du: bidegabeki eman edo aplikatu den edo justifikatu ez den zenbatekoaren ehuneko 50.

2. Arau hauste larrien zehapenak. Arau hauste larritzat jotako jardun bat egiteak zehapen hau ekarriko du: bidegabeki eman edo aplikatu den edo justifikatu ez den zenbatekoaren ehuneko 100.

Arau hauste larri baten ondorioz sortutako kalte ekonomikoa emandako dirulaguntzaren ehuneko 50 baino gehiago eta 30000 eurotik gorakoa bada, eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean 60. idatz zatiko b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako egoera bat badagokio (38/2003 Legea, azaroaren 17koa), arau haustea egin dutenei zehapen hauetako bat ere ezarri ahal izango zaie:

– Hiru urtera arteko epean udalaren dirulaguntzarik, laguntza publikorik eta abalik eskuratu ezina.

– Hiru urtera arteko epean udalarekin kontratuak egiteko debekua.

3. Arau hauste oso larrien zehapenak. Arau hauste oso larritzat jotako jardun bat egiteak zehapen hau ekarriko du: bidegabeki eman edo aplikatu den edo justifikatu ez den zenbatekoaren ehuneko 200.

Arau hauste oso larri baten ondorioz sortutako kalte ekonomikoa 30000 eurotik gorakoa bada, eta Dirulaguntzen Lege Orokorraren artikuluko 60. idatz zatiko b) eta c) paragrafoetan aurreikusitako egoera bat bada (38/2003 Legea, azaroaren 17koa), arau haustea egin dutenei zehapen hauetako bat ere ezarri ahal izango zaie:

— Bost urtera arteko epean administrazioaren edo beste erakunde publikoen dirulaguntzarik, laguntza publikorik eta abalik eskuratu ezina.

— Bost urtera arteko epean administrazioarekin eta beste erakunde publikoekin kontratuak egiteko debekua.

— Bost urtera arteko epean entitate laguntzaile moduan jardun ezina, Lege horretan arautzen diren dirulaguntzei dagokienez.

16. artikulua. Arau hausteen eta zehapenen preskripzioa

Arau hausteak lau urteren buruan preskribatuko dira, egin diren egunetik aurrera.

Zehapenak lau urteren buruan preskribatuko dira, zehapena ezartzeko ebazpena irmo bihurtzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Preskripzio epea etengo da Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (30/1992 Legea, azaroaren 26koa) 132. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Preskripzioa ofizioz aplikatuko da; interesdunek ere eska dezake.

17. artikulua. Indarrean sartzea

Ordenantza hau 2016ko ekainaren 1eko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak behin betiko, ALHAOn argitaratuko da oso-osorik eta indarrean sartuko da behin Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 65.2 artikuluan ezarritako epea igarotakoan (7/1985 Legea).

Hau argitaratu da denek jakin dezaten, eta jakinarazten da honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua zuzenean jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratzen denetik.

Dura, 2016ko abuztuaren 2a

Alkatea

MARÍA BLANCA ANTÉPARA URIBE